

## 07 - KOBATE

### 1. HELBURUAK:

- 1 Harrobiaren oraingo eta geroko jardueri lotuta geratzen diren lursailak hirigintza ikuspegitik arautzea.
- 2 Harrobiaren inguruko paisaia berreskuratzea.
- 3 Gordespen gisa, industriarako lurzoru izendatu eta sailkatua edukitzea.
- 4 Lagapen gehienak Leze-Txiki inguruan kokatzea, babes gisa.

### 2. EGITURAZKO ANTOLAMENDUA:

LURZORUAREN SAILKAPENA:	Lurzoru hiritargaria
ESPARRUAREN AZALERA:	154.637 m <sup>2</sup>
ERABILERA OROKORRA:	Jarduera ekonomikoa
SISTEMA OROKOR PUBLIKOAK:	Esparruaren barruan geratzen den: - Aramaio ibaiaren zatia - Kobate erreken zatia
ERAIKIGARRITASUN FISIKOA:	Bereganatzen den plan bereziak aitortu duena
HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA:	Bereganatzen den plan bereziak aitortu duena
ERAIKIGARRITASUN HAZTATUA:	Bereganatzen den plan bereziak aitortu duena
BABESTU BEHARREKO ONDAREA:	Ez dago
EGITARAU:	Egikaritzen

### 3. BEREGANATUTAKO ANTOLAMENDUA:

(Kobate) S-17 Sektoreko plan partziala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 1993ko urriaren 19an behin betikoz onartutakoa, bereganatzen du HAPO honek.

### 4. ANTOLAMENDU XEHATUA:

ANTOLAMENDU ARAUBIDEA:	Bereganatua (A4)
JARDUKETAREN EREMUA:	Esparrua bera
JARDUKETA ERA:	Hitzarmen-sistema (K4)
ZUZKIDURAK (TOKIKO SISTEMAK ETA URBANIZAZIO IRIZPIDEAK):	
- Eremu zabal eta berdeguneak .....	64.427 m <sup>2</sup> (l)
- Aparkalekuak .....	1 ap./100 m <sup>2</sup> (e)

#### ERABILERA ARAUBIDEA:

- E. ohikoena: Industria arrunt jarduera (86 artikulua)
- Gainontzean, onartutako plan partzialaren arabera

ERAIKIGARRITASUN XEHATUA: Onartutako plan partzialak zehaztu du

ERAIKUNTZAREN ARAUBIDEA: Onartutako plan partzialaren arabera

ESKUHARTZE GUNEA: BAI

#### BESTE BATZUK:

1. Gaur egungo eraikinak antolamenduarekin bat datozen ala ez bereganatutako planak zehaztu du.
2. Eraikigarritasun haztatua kalkulatzeko 36 artikuluan jasotako laukia loteslea da.

### 5. KONTUAN HARTZEKOAK:

- 1 *Ibaiek eta errekek antolatzeko lurraldearen arloko plana*-ren arabera, Aramaio ibaiarekiko urruntze tartea 12 metrotakoa izango da, eta tarte horretan edozein esku-harmen Ur Agentziaren baimenaren menpe geratzen da.
- 2 Harrobi inguruan kokatzen den jabari publikorako egin behar den lagapena, harria ateratzea amaitzen denean gauzatuko da.